

## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Ordizian, **2013ko Maiatzak 29an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

### **BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Igor Eguren Izagirre jauna.

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

### **BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

Izaro Intsausti Zinkunegi andrea. BILDU taldea (Ezin zuela etorri aurretik jakinarazi zuen)

### **IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika jn.


### **KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aramburu Otegi jn.

### **ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra and.

### **BERTARATUAK**



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

### EGUNEKO GAIAK

#### EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2013ko apirilaren 25ean egindako osoko bilkurarako akta onartzea  
.....4.orr.
- 2.-PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa, Gesto por la Pazen jardunaren amaieraren ingurukoa.  
.....4.orr.
- 3.- PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa, Ordiziako udalak “Alkateen Itunerantz” itunari sinatzeari buruzkoa.  
.....4.orr.
- 4.- “Alkateen Itunerantz” ituna sinatzea.  
.....4.orr.
- 5.- PSE-EE-(PSOE)k aurkeztutako mozioa, Toki Administrazioaren erreforma proiektuari buruzkoa.  
.....4.orr.
- 6.- Udalaren manifestua, sexu askatasunari eta sexu dibertsitateari buruzkoa.  
.....4.orr.
- 7.-Ekonomia eta Finantza Plana onartzea Aurrekontu Egonkortasuna lortzeko.  
.....4.orr.
- 8.- 2012ko gastuak 2013ko Aurrekontuetara eranstea onartzea.  
.....4.orr.
- 9.- Kreditu eta transferentziak onartzea.  
.....4.orr.
- 10.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kredituen aldaketen kontu ematea.  
.....4.orr.
- 11.- Nafarroa etobidea 8 jabekideek zesioa onartzea.  
.....4.orr.
- 12.- Dirulaguntza proposamena Saada Herri Sahararrari Laguntzeko Elkartea elkarteari.  
.....4.orr.

#### PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

#### GORABEHERAK


#### GALDE-ESKEAK

#### ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.10ak.

AMAIERA ORDUA: 20:00ak.





## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

### **1.- 2013ko apirilaren 25ean ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.**

#### Proposamena

**2013ko apirilaren 25ean ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Maiza and.

Adierazi du euskerazko bertsioko 3. orrian "bozketa egin gero" jartzen duela eta hori zuzena ez denez, akats hori zuzentzeko eskatzen du.

#### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena aipatutako zuzenketa jaso eta gero, onartutzat eman du.**




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

### **2.- PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa, Gesto por la Paz en jardunaren amaieraren ingurukoa.**

#### MOZIOA:

#### JUSTIFIKAZIOA



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Duela 28 urte, eta bi hamarkadatik gora bizi izandako etengabeko indarkeriaren ondoren, Gesto por la Paz erakundeak argi ikusi zuen milaka herritarrek alderdietatik kanpoko bide bat behar zutela indarkeria hori aurrez aurre errefusatzea oinarri izango zuten uste osoak publikoki adierazteko. Ildo horretan, gizartearen nolabaiteko 'koldarkeria' hausten aitzindariak izan ziren, eta horrek herritar asko – indarkeriaren aurka zeudenak- gaitzespen hori kanporatzen ausartzea ekarri zuen.

Balioen defentsan erakutsitako konstantziak, seriotasunak, irmotasunak euskal gizartearen errespetua eman zioten, egunetik egunera.

Indarkeriaren aurka, eta giza eskubideen eta bakearen kulturaren defentsan eta horiek errespetatuak izatearen alde eta terrorismoaren biktima guztiak aintzat hartuak izatearen alde ia hiru hamarkada borrokatuta, eta 2011ko urriaren 20an ETaren jarduera terrorista bertan behera utzita Euskadin bakea eta elkarbizitza sendotzeko ireki den garai berriaren aurrean, pasa den maiatzaren 6an Gesto por la Paz erakundeak desagiteko erabakia hartu zuen.

Atzean geratu dira ia bakardadean egindako lana, beren pankartei eusteko ia jenderik ere ez zutenekoa. Oso gutxi ematen zioten babesa balio- eta gizartearekiko konpromiso-dosi ikaragarria zuen herri-mugimendu horri. Inondik ere ahanzten uzterik ez ditugun urteak eta lana.

Proposamen garrantzitsua eta ukalezina da hau, asmoa izanik udalbatzak instituzio-mailako aintzatespen gorenarekin ematea herri-mugimendu horretatik Euskadin indarkeria terroristarik ez egoteko lan egin eta borrokatu duten herritar guztiei (herritar anonimoak).

Horregatik guztiagatik, gure iritziz, udal honek Gesto por la Paz erakundeak egindako lanaren aintzatespen publikoa egin beharko luke, eta era berean, beharrezkotzat jotzen dugu bake-erakunde hori sorrarazi zuten printzipioak zabalduko eta bultzatuko dituzten ekimenak antolatzea.


**OSOKO BILKURARAKO GAIK AZTERTZEN DITUEN BATZORDEKO PRESIDENTE JN.**

Halaber, Gesto por la Paz erakundeak bere egitekoan eta lanean funts izan zuen oinarri etikoa ere nabarmendu nahi dugu. Oinarri etiko horretan, barneratu beharko dugu gure geroa gizarte demokratiko gisa eraikitzeak berarekin ekarri beharko dituela indarkeriari zilegitasuna kentzea, eta indarkeria hori gizarte- nahiz politika-testuinguru batekin lotuz justifikatzea edo zuzitzea gaitzestea.

Oroimen bizia, anitza eta partekatua eraiki beharra dugu, beti biktimekiko errespetutik abiatuta, datozen belaunaldientzat adierazgarria eta geroa eraikitzeko baliagarria izango dena.

Horregatik guztiagatik, ondoren aipatzen diren puntuak jasotzen dituen mozioa aurkeztu dugu, onartua izan dadin:

1- ORDIZIAko Udalak aitortu eta eskertu egiten du Gesto por la Paz erakundeak bakearen, giza eskubideen errespetuaren alde, eta indarkeriaren eta terrorismoaren aurka egindako lana.



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

2- ORDIZIAko Udalak instituzioei eta, oro har, gizarte osoari eskatzen die terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztiak aitortuko dituen memoria publiko bat eraikitzea, eta horretan jasotzea oinarritzko eskubideak urratuak izan zituzten biktima guztien egia.

3.- ORDIZIAko Udalak euskal instituzioei eskatzen die susta ditzatela bakearen kultura zabaltzea eta kultura horren inguruko prestakuntza, indarkeriari zilegitasuna kentzea, eta terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak aitortzea.

4.- ORDIZIAko Udalak mozio hau Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Aldundiari, Legebiltzarrari eta Eusko Jurlaritzari, eta Estatuako Kongresuari, Senatuari eta Gobernuari igorriko die.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jn:

Adierazi du mozio honekin errekonozimendu bat egin nahi zaiola “Gesto por la Paz” erakundeari, eta erakunde horretan lan egin duten guztiei, bakearen , giza eskubideen errespetuaren alde, eta indarkariaren eta terrorismoaren aurka egindako lanarengatik.

#### Santamaria jn:


Adierazi du gizarte zibiletik sortutako erakundea izanik, goraiatu nahi duela izan zuen ausardia bere garaian, baina horrekin batera gehitu nahi liokeela 5. puntu bat mozioari, eta puntu hau izango litzatekeela Bilbon hurrengo larunbatean izango den ekitaldirako herritarrei gonbidapena luzatzea.

#### Dubreuil jn:

Adierazi du ez duela inongo arazorik EAJ taldearen proposamena onartzeko, baina ulertzen duela proposamen hori Plenoko Gai Batzordean egin behar zela.

#### Asenjo jn:

Adierazi du mozio hau alderdikoia dela eta kontraesan askotan eroritzen dela, eta jarraian bere ustez dauden kontraesan guztiak aipatu ditu; azpimarratu du nahiz eta mozioan justifikazio batzuk jaso, kuriozkoa dela inorekin adostu gabe aurkeztu izana eta modu alderdikoi batetik; jarraitu du esanez era berean iruditzen zaiola idazkera bera ere partziala dela, iragan irakurketa ere partziala dela, aipatu du beste bake mugimendu batzuk ere desegin direla eta orain bat baduela buruan eta horri buruz ez duela alderdi sozialistak ezer esan; bukatu du esanez mozio honetan ez dagoela oroimen bizia, anitza eta partekatua baizik eta ikuspegi partziala eta horregatik bere taldea abstenitu egingo dela.



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

### Dubreuil jn:

Adierazi du alderdikoia dela esaten denean, alderdi sozialistak aurkeztu duela eta Plenoko Gai Batzordean aurkeztu zela eta han ez zuela inork ezer adosteko asmorik azaldu; partziala dela esan denean onartzen duela horrela izatea, "Gesto por la Paz" eta alderdi sozialistak batera lan egin dutela beraien ikuspegitik, eta ikuspegia zabaltzeko gai izan ez badira hemen planteatu ez delako izan dela. Berak "Gesto por la Paz" inizatibarekin lan egin duela, eta ez duela ezagutzen beste antzeko inizatiba izan denik Ordizian, eta desagertu denik, eta berak errekonozimendua berak ezagutzen duen erakundeari egin nahi diola.

### Alkate jn:

Adierazi du, beraien iritzia garbi azaldu badute ere, ez dutela inongo arazorik 5. Puntua gehitzeko, eta mozioa honela bozkatzeko.

Beraz, bozketara jartzen den proposamena hau da:

### MOZIOA:

#### JUSTIFIKAZIOA


Duela 28 urte, eta bi hamarkadatik gora bizi izandako etengabeko indarkeriaren ondoren, Gesto por la Paz erakundeak argi ikusi zuen milaka herritarrek alderdietatik kanpoko bide bat behar zutela indarkeria hori aurrez aurre errefusatzea oinarri izango zuten uste osoak publikoki adierazteko. Ildo horretan, gizartearen nolabaiteko 'koldarkeria' hausten aitzindariak izan ziren, eta horrek herritar asko – indarkeriaren aurka zeudenak- gaitzespen hori kanporatzen ausartzea ekarri zuen.

Balioen defentsan erakutsitako konstantziak, seriotasunak, irmotasunak euskal gizartearen errespetua eman zioten, egunetik egunera.

Indarkeriaren aurka, eta giza eskubideen eta bakearen kulturaren defentsan eta horiek errespetatuak izatearen alde eta terrorismoaren biktima guztiak aintzat hartuak izatearen alde ia hiru hamarkada borrokatuta, eta 2011ko urriaren 20an ETaren jarduera terrorista bertan behera utzita Euskadin bakea eta elkarbizitza sendotzeko ireki den garai berriaren aurrean, pasa den maiatzaren 6an Gesto por la Paz erakundeak desegiteko erabakia hartu zuen.

Atzean geratu dira ia bakardadean egindako lana, beren pankartei eusteko ia jenderik ere ez zutenekoa. Oso gutxi ematen zioten babesa balio- eta gizartearekiko konpromiso-dosi ikaragarria zuen herri-mugimendu horri. Inondik ere ahanzten uzterik ez ditugun urteak eta lana.

Proposamen garrantzitsua eta ukalezina da hau, asmoa izanik udalbatzak instituzio-mailako aintzatespen gorena ematea herri-mugimendu horretatik Euskadin indarkeria terroristarik ez egoteko lan egin eta borrokatu duten herritar guztiei (herritar anonimoak).



## **Ordiziako Udala**

*(Gipuzkoa)*

Horregatik guztiagatik, gure iritziz, udal honek Gesto por la Paz erakundeak egindako lanaren aintzatespen publikoa egin beharko luke, eta era berean, beharrezkotzat jotzen dugu bake-erakunde hori sorrarazi zuten printzipioak zabalduko eta bultzatuko dituzten ekimenak antolatzea.

**OSOKO BILKURARAKO GAIK AZTERTZEN DITUEN BATZORDEKO PRESIDENTE JN.**

Halaber, Gesto por la Paz erakundeak bere egitekoan eta lanean funts izan zuen oinarri etikoa ere nabarmendu nahi dugu. Oinarri etiko horretan, barneratu beharko dugu gure geroa gizarte demokratiko gisa eraikitzeak berarekin ekarri beharko dituela indarkeriari zilegitasuna kentzea, eta indarkeria hori gizarte- nahiz politika-testuinguru batekin lotuz justifikatzea edo zuritzea gaitzestea.

Oroimen bizia, anitza eta partekatua eraiki beharra dugu, beti biktimekiko errespetutik abiatuta, datozen belaunaldientzat adierazgarria eta geroa eraikitzeko baliagarria izango dena.

Horregatik guztiagatik, ondoren aipatzen diren puntuak jasotzen dituen mozioa aurkeztu dugu, onartua izan dadin:

**1.- ORDIZIAko Udalak aitortu eta eskertu egiten du Gesto por la Paz erakundeak bakearen, giza eskubideen errespetuaren alde, eta indarkeriaren eta terrorismoaren aurka egindako lana.**

**2.- ORDIZIAko Udalak instituzioei eta, oro har, gizarte osoari eskatzen die terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztiak aitortuko dituen memoria publiko bat eraikitzea, eta horretan jasotzea oinarrizko eskubideak urratuak izan zituzten biktima guztien egiak.**

**3.- ORDIZIAko Udalak euskal instituzioei eskatzen die susta ditzatela bakearen kultura zabaltzea eta kultura horren inguruko prestakuntza, indarkeriari zilegitasuna kentzea, eta terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak aitortzea.**

**4.- ORDIZIAko Udalak mozio hau Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Aldundiari, Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari, eta Estatuko Kongresuari, Senatuari eta Gobernuari igorriko die.**

**5.- Bilbon hurrengo larunbatean izango den ekitaldirako herritarrei gonbidapena luzatzea.**

### Bozketa


Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (EAJ 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (BILDU 6)

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.**



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

### **3.- PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa, Ordiziako udalak “Alkateen Itunerantz” itunari sinatzeari buruzkoa.**

#### Proposamena

#### OINARRIAK

Ordizia 2013an hasi zen lantzen Agenda 21, 'Udaltalde 21 Goierri' lantaldearen barruan, eskualdeko beste 17 udalekin batera. Lehen faseko lanaren ondorioz, 2006an 'Ordiziako Tokiko Agenda 21eko I. ekintza-plana' sortu zen. Onartu eta lau urtera, plana eraginkorra izango bazen, eguneratu eta egokitu beharra zegoen, Ordiziako Udalaren funtzionamendura egokitua, teknikarientzat eta arduradun politikoentzat laneko tresna baliagarria izan zedin. 2009ko urrian ekintza-planaren berrikuspenari helduta (abiapuntu gisa ingurumen-diagnostiko laburtua hartuta), eta herritarren partaidetzarako foroak osatzen zuen lantaldea oinarri gisa hartuta, Ordiziako Ekintza Plana 2010-2020 egituratu zen. Dokumentu horretan udaleko hainbat teknikarik eta arduradun politikok ere parte hartu zuten.

Dokumentuak Ordiziako Udalak 2010-2020 aldian landu beharreko ekintzak jasotzen zituen, eta lehenetsunez hartu ziren ekintzak aipatzen zituen. Ekintza-plan horrek hainbat gai edo ildo estrategiko ditu. MOZIO honetan jarraian aipatzen ditugun hauek azpimarratu nahi ditugu:


4.- Energia aurreztean, eragimen energetikoan eta energia berriztagarrietan oinarritutako energia-eredua bat sustatu.

Plangintza horrekin, erronka zen Ordizian energia zentzuz eta eragimenez erabiltzean eta energia berriztagarriak gehiago erabiltzean oinarritutako bizimodua eta jarduera bultzatzea. Eta horretarako, hainbat helburu orokor eta ekintza proposatu ziren horietako bakoitzean.

Alabaina, gaur gaurkoz erronka hori inoiz baino gehiago da erronka; izan ere, energia aurreztearekin, energia-eragimenearekin eta energia berriztagarriak erabiltzearekin lotura duten adierazleek agerian uzten digute programatutako helburuak lortzetik oso urruti gaudela, udalak azken urteotan egindako ahaleginak gorabehera.

Bestalde, 2008an Europar Batasunak klima-aldaketaren eta energiaren inguruan hartutako neurrien ondorioz, Europako Batzordeak 'alkateen ituna' izeneko ekimena aurkeztu zuen, horren helburua izanik tokiko agintariak energia jasagarrien inguruan garatutako ekimenetan egindako ahaleginari babesa eta sostengua ematea.





## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Udalerrien izaeragatik, alkateen itunak energiaren inguruan proposatutako lan-egutegiaz bestelako egutegia behar duten Euskadiko udalerrientzat 'alkateen itunerantz zuzenduz' izeneko ekimena diseinatu da berriki.

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) diseinatutako ekimena da, helburua izanik UDALERRIETAN ENERGIA PLANGINTZA ARLOKA GARATZEA, hau da, udalerrian energia kontsumitzen duten alor bakoitzerako berariazko plangintza egitea 2020. urteari begira.

Horrela, EEEren eta udalaren artean, udalerrian energia kontsumitzen duten sektore bakoitzerako (industria salbu), lehentasunez gauzatu beharreko jarduerak definitzen joango dira. Hortaz, energia-kontsumoaren kudeaketa ondorengo sektoreetan planifikatuko da: argiteria publikoa eta udal-eraikinak, garraio-, zerbitzu-, bizitegi-sektorea eta lehen sektorea.

Aipatutako sektore horietan guztietan energia-eragimena, mugikortasuna eta energia berriztagarriak ezartzea aztertuko da, ahal dela, jarduerak aipatutako sektoreen ordenan gauzatuko dira.

Halaber, 'ITUNERA Iristeko Urratsak' izeneko programa sinatzen duten udalek hartutako konpromisoaren arabera, urtero, gutxienez, ekintza bat (1) gauzatu beharko dute. Ekintza hori EEEK eta udalak adostuko dute.

Horregatik guztiagatik, eta ENERGIA AURREZTEAN, ERAGIMEN ENERGETIKOAN ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERAN OINARRITUTAKO ENERGIA EREDUARI BULTZADA EMATE ALDERA, PSE-EEK (PSOE) honako hau proposatzen dio udalbatza honi:

Ordiziako Udalak eman beharreko urratsak eman ditzala 'Alkateen itunerantz zuzenduz' izeneko ekimenera atxikitzeko, horren xedea izanik energia jasangarritasunerako politikei bultzada ematea, eta gai horretan gure politikentzako aholkularitza, laguntza ekonomiko-finantzarioa, informatiboa eta bestelako sostengu berriak bilatzea.


Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn:

Adierazi du Europako Komisiaok 2008. Urtean martxan jarritako inizatiba hau erantzun bat dela klima aldaketaren arazoari aurre egiteko, eta orain arte 4.500 bat hiri daudela atxikita, eta mozio honen bitartez eskatzen dela Ordiziako Udala ekimen honetara atxiki dadila, horren xedea izanik energia jasangarritasunerako politikei bultzada eman, eta gai horretan gure politikentzako aholkularitza, laguntza ekonomiko-finantzarioa, informatiboa eta bestelako sostengu berriak bilatzea.



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

### Asenjo in:

Adierazi du bere taldea ados dagoela mozioarekin eta alde bozkatuko duela.

### Santamaria in:

Adierazi du aklarazio bat egin nahi diola Dubreuil jaunari, ez direla 4.500 hiri inizatiba honetara atxiki direnak, hau ez dela ituna, baizik eta hau tarteko bide bat dela Euskadi mailan sortutakoa, bidea errazteko. Mozioaren alde daudela, lehentasuna ez bakarrik klimaren aldaketak baizik eta efizientzia eta egonkortasun energetikoa gaia ere lehentasunezkoa dela, egonkortu behar direlako hirietan eta herrietan eraikinak eta kaleko instalazioak.

### Dubreuil in:

Eskertu du egindako aklarazioa, eta azpimarratu du zehatz 4.446 hiri direla itunari atxikita daudenak.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


### **4.- Alkateari "Alkateen Itunerantz" hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.**

#### Proposamena

Alkateari "Alkateen Itunerantz" hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

### Asenjo in:

Azpimarratu du gai honen inguruan azken 6 hilabeteetan lanean aritu direla, bai Agenda 21eko teknikaria eta baita bera ere, eta EVEkin bilera desberdinak ere egin dituztela, eta hitzarmena lantzen joan direla, eta hemen ekartzen dena azken 6 hilabeteetan egindako elkarlanaren emaitza dela, eta Udal Osoko Bilkura honetan alkateari hurrengo ostiralean hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea eskatzen dela. Jarraitu du esanez apostua efizientzia energetikoaren alde egiten dela, baina "alkateen Itunerantz" ituna sinatzen denean, efizientzia energetikoa baino zeozer gehiago sinatzen dela. Santamariak esan duenarekin bat etorri adierazi du bereiztu behar direla batetik alkateen ituna eta bestetik "alkateen itunerantz", eta azken hau beharbada horrenbeste ahalmen ekonomikoa ez dutenen herriei begira gauzatutakoa dela. Bestalde esan du jakin dutela Kataluinan badaudela bi herri apostu honetan sartu direnak, eta bi hauek "alkateen Itunerantz" iniziatiban sartuta daudela eta kurioa dela hobekuntza moduan ontzat eman dela atez ateko hondakin zerbitzuari buruz egiten duten apostua.

### Dubreuil jk:

Esan du pozten dela Kataluinako herri horiek apostu hori egin badute, eta gogorarazi du hitzarmen honetan urari buruz ere aipamena badagoela, eta atez-ateko sistemarekin ur-kontsumoa ikaragarri igoko dela.

### Asenjo in:

Erantzun dio ironia erabiliz gaur egun edukiontzia haize-presioan bitartez garbitzen direla, baina interesgarria dela geroz eta gehiago jende dagoela atez-ateko sistemaren alde; bestalde aipatu du argindar kontsumoa gehitzen doala, eta gogorarazi du bere momentuan lan bat eskatu zitzaioala kontuhartzaileari, eta une honetan pertsona bat praktikaldiak egiteko kontratatu dela 6 hilabetez, eta argindar kontsumoari buruz lana egingo duela gai hau orokorrean aztertzeko. Bukatu du esanez dagoeneko bi hilabete daramatzala, eta lanak bukatzen dituztenean emaitzen berri emango duela.

### Kontuhartzaile jnk:


Asenjo jaunak egindako aipamenari dagokionez, adierazi du eskaera jaso zuela lan hori egiteko, eta berak ahal zuen neurrian erantzun ziola. Azterketa egoki bat egiteko finkatu egin behar zirela zein erreferentzizko kontsumoak aztertu nahi ziren. Garbi dagoela 6 hilabeteetan lan txukun bat egin daitekeela horretara bakarrik dedikatu ezker.

### Asenjo in:

Erantzun dio ez dela kontuhartzailearekin eztabaidan sartuko.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **5.- PSE-EE-(PSOE)k aurkeztutako mozioa, Toki Administrazioaren erreforma proiektuari buruzkoa.**

#### Proposamena


#### **JUSTIFIKAZIOA**

Espaniako PPren gobernuak urtebete darama toki-erakundeen funtzionamendua arautzen duten oinarri juridikoak aldatu behar dituela iragarri. Azkenik, iragan otsailaren 15ean, Gobernuak, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasun legearen aurreproiektua tramitatu zuen, ezagunagoa dena "toki-administrazioaren erreforma legea" izenez.

Udalak aspaldi hasi ziren toki-erakundeen legeak eta finantzaketa aldatu behar zirela aldarrikatzen, udalek dituzten erantzukizunak dagozkion eskumenekin eta finantzaketarekin hornitu behar direla gaineratuz. Nolanahi ere, Udal elkarte, federakuntza eta alkateen eskakizun historikoak aintzat hartu beharrean, erreformak beste bide batzuk urratzen ditu: udalen berezko eskumenak urrundu egiten dira udaletatik eta herritarrengandik eta, era berean, Udalen eskumenak eta diru-baliabideak autonomia erkidegoei eskualdatzen zaizkie. Gainera, eskumen "impropioak" deiturikoen kasuetan, zerbitzuak ematea ez bermatzeaz gain, desagertu egingo dira beste inolako administrazioek ematen ez dituztelako. Bestalde, Lurralde Aldundira pasatuko diren zerbitzuak pribatizatu egin ahalko dira, eta honek herritarrek ordaindu beharreko tasa eta prezioen igoera ekarriko du.

Guztiok bat gatoz zorrozatasuna, austeritatea eta eraginkortasuna aplikatu behar dela esaterakoan, baina honek ez du esan nahi zerbitzu publikoak ezabatu edo garestitu behar direnik. Udalek eskaini behar dituzten gutxieneko zerbitzuak bermatu beharrean, arriskuan jartzen dira. Eta honekin arriskuan jartzen dira 200.000 lanpostu publiko baino gehiago, lanpostu hauetako eginkizunak enpresa pribatuek hartu ditzaketelako beren gain edo, besterik gabe, desagertu egin daitezkeelako.

Ezer ez dago argi, ez prozeduraren nondik norakoa ezta azken geltokia ere. Gobernuak proposamena egin du ezagutu barik udal egiturak zer nolako rola jokatzen duen estatuaren bizkarrezurrean. Zerbitzu publikoak irizpide ekonomikoekin baino ez dituzte baloratzen, albo batera utzita zerbitzuok eurok ematen dieten onura soziala erabiltzaile eta herritarrei.



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Orain arte esandako guztiari Euskadin sortzen den segurtasun juridiko eza gehitu behar zaio, Euskal Autonomia Erkidegoak Espainiako Konstituzioak aitortzen dion erregimen berezia duelako (Konstituzioaren 1. xedapen gehigarria eta Autonomia Estatutuaren 3, 24.2 eta 37. artikulua). Azkenhonetan hauxe ezartzen da: "Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoek eurek antolatuko dituzte, modu librean, euren funtzionamendurako arauak, eta ez zaie aplikatutako Lege honek lurralde-antolaketa mailan jasotzen dituenak". Honekin lotuta, aipatu beharra dago Foru Erregimenaren berezitasuna: Foru Aldundiak ez dira toki-entitateak, eta ezin dira asimilatu Espainiako gainerako Lurralde Diputazioekin; ondorioz, Foru Aldundiek ezin dituzte beren gain hartu erreforma lokal honekin pasanahi dizkien eskumenak.

Hortaz, udal autonomia, udalgintza eta herritarrengandik hurbilen dauden erakundeek egindako lana defendatzen dugu, izan ere, erakunde hauek dira herritarren nahi, arazo eta aldarrikapenak ondoen ezagutzen dituztenak. Halaber, euskal autogobernua aldarrikatzen dugu, eta Espainiako Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak gure erakundeak eta gure lurralde-antolaketa eratzeko eman diguten gaitasuna ere aintzat hartzen dugu.

Horrexegatik, EUDEL-en egitekoa behar beharrezkoa dela deritzogu Lege honek Euskadin eragingo dituen ondorioak aztertzeko.


Honengatik guztiagatik, ezinbestekoa deritzogu Udala hau Espainiako Gobernuak bideraturiko erreformaren aurka agertzeari. Halaber, eta aurreko paragrafoetan esandakoa kontuan izanik, Eusko-Jaurlaritzari eskatuko zaio Euskadiko Udalen Lege-proiektua aurkeztu diezaiola Eusko Legebiltzarrari, eta lege-proiektu honek udal eskumenak zehaztu ditzala eta eskumenok aurrera ateratzeko behar den finantzaketa bermatu dezala.

Azken batean, Konstituzioak eta Europako Kartak bermatzen dute estatu deszentralizatu baten demokrazia, kohesio eta gizarte eta lurralde egituraketaren oinarri den toki-autonomia. Guztion lorpena da herritarrentzako zerbitzu gehiago eta hobeagoak emateko modeloa diseinatu izana: toki gobernua eratu ditugu; parte-hartze, gizarteratze eta elkarbizitza-eredu diren toki gobernua, alegia.

Esandako guztiagatik, Alderdi Sozialistaren Udala taldeak hauxe aurkezten du:

1.- Udaleko osoko bilkurak toki-autonomia berresten du eta, halaber, Udalek aukera berdintasunaren alorrean, demokrazian eta kohesio sozialean duten paper garrantzitsua nabarmentzen du, izan ere, aipatutako ezaugarriek esker egituratu delako lurraldea eta oinarriko zerbitzuak eta gertukoak eskaini izan direlako herritarrentzako. Era berean, Udalei eta beraien herritarrei adierazi nahi die, eta bereziki udalerritxikienei, gure laguntza eta aitortza gizarte guztiarentzako lurraldea bizirik edukitzeko egiten ari diren lanagatik.

2.-Osoko bilkurak Espainiako Gobernuari eskatzen dio toki administrazioaren arrazionalizatzeko eta jasangarritasun legearen aurreproiektua erretiratu dezala eta, halaber, elkarrizketa-prozesu bat ireki dezala Diputatuen kongresuko talde parlamentario guztiekin, FEMP, EUDEL eta bestelako udalen federakuntza eta elkarteekin, toki esparrua eta herritarren eskubide sozialak arautzen duten legeen



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

erreformari ekiteko.

3.- Osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, gure eskumenen babesean, bere lege-egutegian jaso dezala Euskadiko Udalen Lege-proiektua bidaltzea erakunde honetara. Lege-proiektuak, besteak beste, honakoak jasoko ditu: udal eskumenen zehaztapena, eskumenok aurrera ateratzeko behar den finantzaketa bermatzea eta herritarren eskubide sozialak jasotzea

4.- Akordio honen berri emango zaie Espainiako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari, Estatuko Kontseiluari, Diputatuen Kongresuari, Senatuari eta, halaber, FEMParen gobernu-batzari eta EUDELEko zuzendaritza-batzordeari.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jn:

Adierazi du Estaduko Gobernuak toki-administrazioaren erreforma legea martxan jarri duela, eta erreforma bat baino gehiago toki-administrazioaren desagertzea ere ekar dezakeela; Udal kompetentzi batzuk desagertzen dira, eta kasu batzuk oso kezagarriak dira, adibidez gizarte zerbitzuak, seguridade publikoa, udalak zenbat eta txikiagoak izan kompetentziak galtzen joango direla, eta kalkulo batzuk daude non zalantzan jartzen den Udalen ahalmena zerbitzuak kudeatzeko, kudeaketa horiek beste erakunde batzuk pasatzera, eta azkenean zerbitzu pribatuetan bihurtzeko arriskua egonik.


Bestalde, aipatu du, kontsentsoa zabaltzeko Bildutik aldaketa bat eskatu dela, hau da (FEMP, EUDEL) jartzen diren lekuetan, generikoki "udal erakundeak" jartzea, eta berak onartzen duela proposamen hori.

#### Alkate jn

Adierazi du, oinarrian justifikazioekin desberdintasunak badituztela eta baita egiten den aparteko ñabardurekin, baina mozioaren fondoarekin bat datozela, erreformarekin Udalen eskumen eta autonomia gutxitu nahi dela, eta indarrak metatzeko garaia dela. Ez dutela baldintzatu aldeko bozka diferentzi horiek onartzera, bozka baiezkoa izango dela eta argitu nahi izan du mozioan beste erakunde batzuekiko esplizitasuna azaltzen zen bezala, beste erakunde batzuk ere badaudela, adibidez Udalbiltza, eta horregatik azkenean izenak kendu eta generikoki "udal erakundeak" erabiltzea adostu zela.

#### Santamaria jn

Adierazi du bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela, ez duela inongo arazorik Bilduk proposatutako aldaketa onartzeko; aipatu du gai honekiko momentu honetan dagoen kaosa, eta adierazi du espero duela gutxienez euskal erakundearen eremua errespetatua izatea.



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Eztabaidaren ondorioz, bozketatzen den proposamena hau da:

### Proposamena

#### **JUSTIFIKAZIOA**

Espainiako PPren gobernuak urtebete darama toki-erakundeen funtzionamendua arautzen duten oinarri juridikoak aldatu behar dituela iragarri. Azkenik, iragan otsailaren 15ean, Gobernuak, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasun legearen aurreproiektua tramitatu zuen, ezagunagoa dena "toki-administrazioaren erreforma legea" izenez.


Udalak aspaldi hasi ziren toki-erakundeen legeak eta finantzaketa aldatu behar zirela aldarrikatzen, udalek dituzten erantzukizunak dagozkion eskumenekin eta finantzaketarekin hornitu behar direla gaineratuz. Nolanahi ere, Udal elkarte, federakuntza eta alkateen eskakizun historikoak aintzat hartu beharrean, erreformak beste bide batzuk urratzen ditu: udalen berezko eskumenak urrundu egiten dira udaletatik eta herritarrengandik eta, era berean, Udalen eskumenak eta diru-baliabideak autonomia erkidegoei eskualdatzen zaizkie. Gainera, eskumen "impropioak" deiturikoen kasuetan, zerbitzuak ematea ez bermatzeaz gain, desagertu egingo dira beste inolako administrazioek ematen ez dituztelako. Bestalde, Lurralde Aldundira pasatuko diren zerbitzuak pribatizatu egin ahalko dira, eta honek herritarrek ordaindu beharreko tasa eta prezioen igoera ekarriko du.

Guztiok bat gatoz zorrozatasuna, austeritatea eta eraginkortasuna aplikatu behar dela esaterakoan, baina honek ez du esan nahi zerbitzu publikoak ezabatu edo garestitu behar direnik. Udalek eskaini behar dituzten gutxieneko zerbitzuak bermatu beharrean, arriskuan jartzen dira. Eta honekin arriskuan jartzen dira 200.000 lanpostu publiko baino gehiago, lanpostu hauetako eginkizunak enpresa pribatuek hartu ditzaketelako beren gain edo, besterik gabe, desagertu egin daitezkeelako.

Ezer ez dago argi, ez prozeduraren nondik norakoa ezta azken geltokia ere. Gobernuak proposamena egin du ezagutu barik udal egiturak zer nolako rola jokatzen duen estatuaren bizkarrezurrean. Zerbitzu publikoak irizpide ekonomikoekin baino ez dituzte baloratzen, albo batera utzita zerbitzuok eurok ematen dieten onura soziala erabiltzaile eta herritarrei.

Orain arte esandako guztiari Euskadin sortzen den segurtasun juridiko eza gehitu behar zaio, Euskal Autonomia Erkidegoak Espainiako Konstituzioak aitortzen dion erregimen berezia duelako (Konstituzioaren 1. xedapen gehigarria eta Autonomia Estatutuaren 3, 24.2 eta 37. artikulua). Azkenhonetan hauxe ezartzen da: "Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoek eurek antolatuko dituzte, modu librean, euren funtzionamendurako arauak, eta ez zaie aplikatutako Lege honek lurralde-antolaketa mailan jasotzen dituenak". Honekin lotuta, aipatu beharra dago Foru Erregimenaren berezitasuna: Foru Aldundiak ez dira toki-entitateak, eta ezin dira asimilatu Espainiako gainerako Lurralde Diputazioekin; ondorioz, Foru Aldundiek ezin dituzte beren gain hartu erreforma lokal honekin pasanahi dizkien eskumenak.

Hortaz, udal autonomia, udalgintza eta herritarrengandik hurbilen dauden erakundeek egindako lana



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

defendatzen dugu, izan ere, erakunde hauek dira herritarren nahi, arazo eta aldarrikapenak ondoen ezagutzen dituztenak. Halaber, euskal autogobernua aldarrikatzen dugu, eta Espainiako Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak gure erakundeak eta gure lurralde-antolaketa eratzeko eman diguten gaitasuna ere aintzat hartzen dugu.

Horrexegatik, Udal Erakundearen egitekoa behar beharrezkoa dela deritzogu Lege honek Euskadin eragingo dituen ondorioak aztertzeko.

Honengatik guztiagatik, ezinbestekoa deritzogu Udal hau Espainiako Gobernuak bideraturiko erreformaren aurka agertzeari. Halaber, eta aurreko paragrafoetan esandakoa kontuan izanik, Eusko Jaurlaritzari eskatuko zaio Euskadiko Udalen Lege-proiektua aurkeztu diezaiola Eusko Legebiltzarrari, eta lege-proiektu honek udal eskumenak zehaztu ditzala eta eskumenok aurrera ateratzeko behar den finantzaketa bermatu dezala.

Azken batean, Konstituzioak eta Europako Kartak bermatzen dute estatu deszentralizatu baten demokrazia, kohesio eta gizarte eta lurralde egituraketaren oinarri den toki-autonomia. Guztion lorpena da herritarrentzako zerbitzu gehiago eta hobeagoak emateko modeloa diseinatu izana: toki gobernua eratu ditugu; parte-hartze, gizarteratze eta elkarbizitza-eredu diren toki gobernua, alegia.

Esandako guztiagatik, Alderdi Sozialistaren Udal taldeak hauxe aurkezten du:

**1.- Udaleko osoko bilkurak toki-autonomia berresten du eta, halaber, Udalek aukera berdintasunaren alorrean, demokrazian eta kohesio sozialean duten paper garrantzitsua nabarmentzen du, izan ere, aipatutako ezaugarriei esker egituratu delako lurraldea eta oinarritzko zerbitzuak eta gertukoak eskaini izan direlako herritarrentzako. Era berean, Udalei eta beraien herritarrei adierazi nahi die, eta bereziki udalerrri txikienei, gure laguntza eta aitortza gizarte guztiarentzako lurraldea bizirik edukitzeko egiten ari diren lanagatik.**

**2.-Osoko bilkurak Espainiako Gobernuari eskatzen dio toki administrazioaren arrazionalizatzeko eta jasangarritasun legearen aurreproiektua erretiratu dezala eta, halaber, elkarriketa-prozesu bat ireki dezala Diputatuen kongresuko talde parlamentario guztiekin eta Udal Erakundeekin, toki esparrua eta herritarren eskubide sozialak arautzen duten legeen erreformari ekiteko.**


**5.- Osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, gure eskumenen babesean, bere lege-egutegian jaso dezala Euskadiko Udalen Lege-proiektua bidaltzea erakunde honetara. Lege-proiektuak, besteak beste, honakoak jasoko ditu: udal eskumenen zehaztapena, eskumenok aurrera ateratzeko behar den finantzaketa bermatzea eta herritarren eskubide sozialak jasotzea**

**6.- Akordio honen berri emango zaie Espainiako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari, Estatuko Kontseiluari, Diputatuen Kongresuari, Senatuari eta, halaber, eta Udal Erakundeei.**

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:





## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **6.- EAJ aurkeztutako idatzia “Udal manifestua, sexu askatasunari eta sexu dibertsitateari buruzakoa” izen burua duena.**

#### Proposamena


2013ko maiatzaren 17an Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Eguna ospatzen dugu. Ordiziako Udalak berretsi nahi du diskriminazio afektibo-sexualaren eta genero-identitatean oinarritutako diskriminazioaren aurkako borrokan duen konpromisoa. Izan ere, diskriminazio horren funtsean aurreiritziak eta ezjakintasuna daude, eta berdintasun printzipioaren aurkakoa da-printzipio horren arabera, pertsona guztiak berdinak gara eta eskubide berberak ditugu, gure orientazio sexuala edo genero-identitatea edozein dela ere-.

Egia da azken urteetan aurrerapauso handiak lortu dituztela LGTB taldeek mendebaldeko herrialde asko eta askotan, berdindu egin baitira zenbait lege eta eskubide. Dena dela, oraindik ere badago zer lortu gizaratean, esaterako, orientazio sexualaren ondorioz sortutako indarkeria, munduko hainbat herrialdetan eragiten diona lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualei.

Gaur egun, joera heterosexual, binarista eta heldua posible den arau bakar gisa aurkezten da, eta gainerako aukerak errudun gisa agerrarazten dira. Mendebaldeko sexualitatearen eskuliburua mugatuta dago, beraz, eta onargarritasun soziala, legitimitate morala eta legezko eskubideak galarazten dizkie gainerako sexu praktikei eta identitateei.

Egoera horren ondorioz, LGTB taldeen barruan ageri-agerikoa da jendaurrean adierazpen afektibo-sexualak egiteko beldurra. Gay, lesbiana, transexual, bisexual eta transgenero eta intesexualek askotan intimitatean eta sekretupean baino ez dituzte egiten adierazpen afektibo-sexualak eta identitatearekin lotutakoak, mendeetan zehar jasandako errepresioaren beldur.

Ikastetxeetan ere agertzen da errealitate hori, eta hala erakusten du Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (IVEI-ISEI) landutako Ikaskideen arteko tratu txarrak Lehen Hezkuntzan eta DBHn txostenak. Izan ere, DBHko ikasleen % 10 baino gehiagok dio ikaskide bat, bere sexu-



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)


orientazioari, bere harreman afektibo eta sexualei edo bere identitateari buruzko esamesen bidez, etengabe baztertu duten kasuak ikusi dituela.

Ikastetxeetan, harremanen eta interakzioen bitartez ikasten da, eta herritar guztiak ikastetxean egoten dira, hain zuzen ere, beren sexu- eta genero-identitatea eratzten hasten diren adinetan. Horregatik, ikastetxeak espazio pribilegiatuak dira ikasle guztiekin lan egiteko, begirada inklusibo, demokratizatzaile eta hiritar batekin, gay, lesbiana, transexual eta bisexual, transgenero eta intersexualen aurrean—hots, gizartean nagusi eta arau diren genero-patroiak betetzen ez dituzten pertsonen aurrean— ez dadin egon aurreiritzirik, gaitzespenik eta aurkako jarrerarik.

Hezkuntzak eraldaketak egiteko duen ahalmenaren jakitun, Ordiziako Udala hezkuntza-komunitateei eskatzen die genero-ikuspegia eta sexu-dibertsitatearako ikuspegia sar ditzatela ikastetxeko plangintza-tresnetan (ikastetxeko hezkuntza-proiektuan, proiektu kurrikularrean, programazioetan...); irakasleei eta familiei eskatzen die sexualitateari, generoari eta sexu-orientazioari buruzko prestakuntza har dezatela, eta ikasleei eskatzen die jarrera kritikoa izan dezatela eta modu aktiboan erantzun diezaietela sexismoari eta homofobiaren, lesbofobiaren, transfobiaren eta bifobiaren adierazpen guztiei.

Horretarako, Ordiziako Udalak manifestu hau aldarrikatzen du eta dei egiten die hezkuntzako erakundeei, eskola-kontseiluei, guraso-elkarteei eta gizarte osoari manifestu honen alde agertzeko, eta konpromisoa hartzeko, jarraian adieraziko diren premisak aintzat hartuta, Gipuzkoa bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraikitzeko. Premisak hauek dira:

- 1. Herritar guztiak errespetatzea, haien orientazio sexuala eta genero-identitatea edozein dela ere.**
- 2. Pertsonen duintasuna eta osotasun fisikoa —estatuetakoko gobernuen legeen bidez bermatu beharrekoak biak— errespetatzea. Espazio publikoan eta, bereziki, hezkuntzaren arloan ematen diren adierazpen homofobo, lesbofobo, transfobo eta bifoboak irmotasunez kondenatzea.**
- 3. Mundu osoan erabat despenalizatzeko eskatzea, hori baita herritar guztien artean benetako sexu askatasuna eta berdintasuna egotearen seinale. Bereziki kondenatzea LGTB taldeko pertsonen aurkako heriotza zigorra oraindik ere sexu-askatasuna despenalizatu ez duten herrialdeetan, eta zigor horren aurka egitea.**
- 4. Transexualitatea despatologizatzeke eta DSM eta CIE psikiatriako eskuliburuetatik kentzeko eskatzea.**
- 5. Espazio publikoan eta bereziki hezkuntzaren arloan egindako adierazpen afektibo-sexualen eta genero-identitateen ikusgaitasuna errespetatzea.**
- 6. Lanerako, hezkuntzarako eta aisialdirako guneak erabiltzeko eskubidea bermatzea, sexuaren edo genero-identitatearen ondoriozko inolako diskriminaziorik gabe.**



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

7. Aukera sexual eta genero-identitate bakoitzaren irudi duina sustatzea komunikabideetan, bai eta agerraldi kulturaletan, sozialetan, artistikoetan eta, bereziki, hezkuntzaren arlokoetan.

8. Gizarte anitzago, ireki eta integratzaileago baten alde lan egiteko esperientziak eta jarrerak sustatzea, gizarte bat non orientazio afektibo-sexuala eta genero-identitatea ez diren inorentzat oztopo izango.

9. Sexualitate anitzerako bidea egitea, mitorik gabe, konparaziorik gabe, inposiziorik gabe, eta sexualitate askearen -aukera eta orientazio sexualerako eta genero-identitaterako askatasuna barne- aurkako jokabide guztien kontra egitea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Azpimarratu du nahiz eta Udalaren manifestua jarri, EAJ taldeak aurkeztutakoa dela.

Garin and.

Adierazi du nahiz eta EAJ taldeak aurkeztu, Udalak bere osotasunean onartzeko helburuarekin aurkeztu dela.

2013ko maiatzaren 17an Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako eguna ospatu zen eta atera zen manifestu hau, baina berriro atera nahi izan dute zeren eta ez da ahaztu behar egoera hau sufritzen dutenentzat arazo bat dela, eta hemen agertzen diren 9 puntu kontuan hartzea eta manifestu honi bere osotasunean onartzea eskatzen da mozioan; jarraian aipatu du akats bat dagoela, berak bihar zuzen bidali zuela eta zuzena dela "Gipuzkoa bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraikitzeko".

Alkate jn.


Adierazi du bere taldea ados dagoela mozioarekin, gogoratu du iaz Dubreuil jaunak aurkeztutako mozioa eta aipatu du badabilela gai honen inguruan talde bat eta baita ere bazegoela mahai gainean maiatzaren 17rako talde horrek bidalitako manifestu bat, eta ez dela tratatu tartean bilerarik egon ez delako, eta asko pozten dela horren gai arrunta ez diren gaietan EAJ taldeak mozioak aurkeztea.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **7.- Ekonomia eta Finantza Plana onartzea Aurrekontu Egonkortasuna lortzeko.**

#### Proposamena

2013ko martxoaren 7an onartu zen 2013ko Aurrekontua 149.352,00 euroko defizitarekin, KES terminoetan (Kontuen Europako Sistema).

Egoera honen aurrean Udalak Ekonomia eta Finantza Plan bat onartu behar zuen, hurrengo urtean egonkortasun ekonomikoa lortu ahal izateko.

Kontuhartzaileak, Gobernu Taldearen irizpideak jarraituz, 2013-2016 epealdirako aurrekontu bat prestatu zuen, Aurrekontu Egonkortasun egoerara itzultzeko. Plan hori apirilaren 25eko osoko bilkuran onartu zen.

Gaiarekin jarraituz, kreditu gehigarrien 1. espedientearen onarpenarekin batera, 2013-4-25eko osoko bilkuraren akordioaren ondorioz, Finantza Plan berri bat idaztea beharrezkoa da.

Kontuhartzaileak idatzi du eta ondorioztatu du hau onartzeak ez duela 2013-2016 epealdiko aurreikuspena aldatzen.

#### AKORDIO PROPOSAMENA

#### **Kreditu gehigarrien 1. zenbakiko espedientearen onarpenaren bidez idatzitako Ekonomia eta Finantza Plana onartzea.**


Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate in.

Intsausti andrea falta denez, ekonomi gaiak aurkezteko hitza kontuhartzaile jaunari eman dio.



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

### Kontuhartzaile jn.

Adierazi du aurrekontua onartu zenean esplikatu zela, aurrekontuak ez zuela betetzen egonkortasun legea, eta horren ondorioz plan bat prestatu behar izan zela 2013-2016 epealdirako, 2014tik aurrera egonkortasun legea betetzen dela ziurtatuz. Kreditu aldaketak egiten diren bakoitzean ekonomi-finantza plan berria egin behar da. Kasu honetan ondorioztatzen da plana onartzeak ez duela 2013-2016 epealdiko aurreikuspena aldatzen. Bukatu du esanez hilabete honetan zehar egiten diren aldaketak 2014. urteko aurrekontuan eragina izaten badute, orduan bai neurri zorrotzagoak hartu beharko direla.

### Alkate jn.

Garbi geratu dadin, azpimarratu du edozein kreditu aldaketa egiten denan, ekonomia eta finantza plana onartu beharko dela.

### Kontuhartzailea jn

Adierazi du lana errazteko, hil bakoitzean egiten diren kreditu aldaketak, denak plan bakar batean ekarriko dituela.

Jarraian Dubreuil jaunak dituen zalantzak argitu dizkio kontuhartzaileak.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (EAJ/PNV 5)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**




Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **8.- 2012ko gastuak 2013ko Aurrekontuetara eranstea onartzea.**

#### Proposamena.

2013-4-25 eguneko Osoko Bilkuran aurrekontu krediturik gabeko 2012ko gastuen zerrenda onartu ondoren, beste gastu batzuk azaldu dira eta gastu hauek 2013ko Aurrekontuan sartzeko prozedura bera jarraitu behar da.



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Gastuak honakoak dira:

- Oiangurengo bideko espaloiaaren obra zuzendaritza eta plataforma (%50a Udalaren kontura) 2.205,15 euro.
- Merkataritzaren sustapenerako bulegoa (Beasain): 2.000 euro.
- 20 ohol oholtza inguruko itxiturarako: 1.778,70.- euro.

Gastu hauek 2013ko Aurrekontuei eransteko, hiru aukera daude:

- 1.- 2013ko partidetako kredituak handitzea erantsi behar diren gastuen neurri berean.
- 2.- 2012ko gastuak bere gain hartuko dituzten partidetako arduradunei eskatzea 2013rako aurreikusitako gastuak baliogabetzeko 2012ko gastuak sartzen diren neurrian.
- 3.- bi aukerak bateratzea burututako gastuaren boluntariotza mailaren arabera.

Gaia onartzea premiazkoa da, fakturak ordaindu gabe baitaude.

Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2013ko maiatzaren 22ko Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordean gaia aztertu eta gero, ondorengoa aurkezten da Osoko Bilkuran onartzeko:

### AKORDIO PROPOSAMENA

**2012 urteko gastuak 2013 urteko Aurrekontuetan sartzea onartzea, guztira 5.983,85 euro.**

**2013ko Aurrekontuen kreditu gehigarrien 3. espedientea onartzea, 5.983,85 eurokoa, gastu hauen gehikuntza finantzatzeko.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida


Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Kontuhartzaile jn.

Adierazi du 2013-04-25eko Udal Osoko Bilkuran aurrekontu krediturik gabeko 2012ko gastuen zerrenda onartu ondoren, beste gastu batzuk azaldu direla eta gastu hauek 2013ko aurrekontuan sartzeko, prozedura bera jarraitu behar dela.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Aldeko botoak: 6 (BILDU 6)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **9.- Kreditu eta transferentziak onartzea.**

#### Proposamena

Oiangurenen ikerketa bat egiteko Aranzadi Elkarte kontratatzeko asmoa dago, eta aurrekontua 14.000 eurokoa da. 2012an Oiangurengo obretarako 50.000 euro gorde ziren eta ondoren 2013ko Aurrekontura gehitu ziren.

Beste alde batetik, Barrena Jauregian beirazko ate bat ipini behar izan da eta gastua 2.265,12 eurokoa izan da. Horretarako obra txikien partidako kreditua erabiltzeko asmoa dago.

Aurrekontu exekuziorako 3. oinarrian ezarritakoa kontuan izanda, osoko bilkurako akordioa behar da inbertsio partiden murrizketa proposatzean.

#### AKORDIO PROPOSAMENA

**623.434.12.02.2012 partidatik 643.434.12.01 partidara 14.000,00 euroko kreditu transferentzia egitea onartzea.**

**601.511.00.02 partidatik 622.451.10.03 partidara 2.265,12 euroko kreditu transferentzia egitea onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.


#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Espedienteari buruzko azalpenak eman ditu.

Dubreuil jn.



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Aranzadiren gastuari dagokionez, galdetu du zertako den.

### Asenjo in

Erantzun dio Oianguko landare eta animaliei buruzko azterketa egiteko dela.

### Dubreuil in:

2012an Oianguko obretarako gorde ziren 50.000,00 euro eta 2013ko aurrekontura gehitu zirenak, eta kreditu transferentzia egin ondoren 36.000,00 eurotan geratu den kopuru hori zertan erabiliko den galdetzen du; Intsausti andrea ez dagoenez, Asenjo jauna erantzuten saiatu da, eta garbi utzi du kopuru honek ez duela Oianguko teilatua konpontzeko partidarekin zerikusirik, baina edozein kasuan gai hau Intsausti andrea dagoenean aklaratzeko utzi da.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (BILDU 6)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **10.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kredituen aldaketen kontu ematea.**

Gipuzkoako Toki Erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua arabera, Osoko Bilkuran Aurrekontuen aldaketen berri eman behar da.


Aurten oraingo onartutako aldaketak honakoak dira:

#### Kreditu transferentziak

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
3	387	25.000,00
4	396	6.000,00

#### Kreditu gehigarriak





## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
2	419	6.969,34

Kreditu eransketak

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
2		

Kredituak gaitzea

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
1	397	1.610,00

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Espedienteari buruzko azalpenak eman ditu.

**Jakinaren gainean geratu da Udalbatza Plenoa.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


### **11.- Dirulaguntza proposamena Saada Herri Sahararrari Laguntzeko Elkartea elkarteari.**

#### Proposamena

- Honako hau ikusita:

Ordiziako udaleko garapenerako lankidetzeta-programa arautzen duen araudiko, 2012ko maiatzaren 31an onartua, Lehenengo Kapituluaren helburua, garatze bidean dauden edo ezbeharren bat jasan duten herrialdetatik datozen haurrak Ordiziako familietan harreran hartzeko, haur hauen bidai gastuei aurre egiteko diru-laguntzak ematea da.

AKORDIO PROIEKTUA



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

**Dirulaguntza ematea Saada Herri Sahararrari Laguntzeko elkarteari, garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen hurren denboraldirako harrera programan parte hartzeagatik, Saharako bi haur Ordiziako bi familien etxeetan hartuz 2013ko udan.**

**Laguntza 1.630 €koa da, 815 € ume bakoitzeko eta hartutako umeen bidaiaren gastuei dagokio.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila..

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and.

Adierazi du laguntza hau Udaleko garapenerako lankidetzeta-programan kokatzen dela, eta konkretuki aurten Saharako bi haur Ordiziako bi familien etxeetan hartzeko eskaera izan dela, eta laguntza osoa 1.630,00 eurokoa izango dela, konkretuki 815 euro ume bakoitzarentzat.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**




Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **12.- Nafarroa etorbidea 8 jabeekideek zesioa onartzea.**

#### Proposamena

2013ko martxoaren 4an, Nafarroa etorbidea 8ko Erkidegoan egindako Ezohiko Batzordearen berri ematen da. Batzorde horretan eta Erkidegoko administradoreak Udalean aurkeztutako aktaren bitartez, bertaratutakoek aho batez onartu zuten Ordiziako Udalarri ibaiaren paralelo eta Erkidegoarentzat pribatua izango zen lur-zerrenda doan lagatzea, bertan bidegorria eraikitzeko.

2013ko maiatzaren 22ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatzen da:



## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

### AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- Nafarroa Etorbidea 8 erkidegoko jabetza pribatuko lur-zerrenda, doan laga dadin onartzea, Oria ibaiaren paralelo, bertan bidegorri bat eraikitzeko, Ordiziako Udalak bere aldetik aipaturiko gunee eta atxikita daukan setoaren mantenimendu-lanak bere gain hartzen ditu.
- 2.- Eskritura publikoak formalizatzeko prozedura eta Erregistroko gastuak, edo lagapenak lekarkeen beste edozein gastu Ordiziako Udalak ordainduko ditu.
- 3.- Alkateari ahalmena eman behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila..

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Asenjo in.

Lagapenen egoeraren berri eman du, eta azpimarratu du nahiz eta oso motel joan, pixkanaka ari direla lagapenak lortzen.

#### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**




Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **13.- Eskaerak eta galderak**

Ez dago.





## **Ordiziako Udala**

*(Gipuzkoa)*

Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.